

HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua
Ikasturtea: 2021-2022

**KIROL ALTERNATIBOEN ETA BEREZIKI
ARTZIKIROLAREN EZAGUTZA ETA
INTERESA BIGARREN HEZKUNTZAKO
IKASLEETAN**

EGILEA: Romay Gómez, Andrea

ZUZENDARIA: Llodio Uribeetxebarria, Iñaki

2022ko maiatzaren 13a

AURKIBIDEA

1. LABURPENA.....	4
2. SARRERA	7
3. MARKO TEORIKOA	8
3.1 Kirol alternatiboak	8
3.1.1 Hurbilketa kontzeptuala	8
3.1.2 Kirol alternatiboen ezaugarriak	9
3.1.3 Kirol alternatiboak heziketa fisikoan.....	10
3.2 Artzikirola.....	11
3.2.1 Artzikirolaren nondik-norakoak.....	11
3.2.2 Artzikirolaren arautegia.....	12
4. KIROL ALTERNATIBOEN INGURUKO ESKU-HARTZE IKERKETA.....	14
4.1 Esku-hartzearen justifikazioa eta helburuak.....	14
4.1.1 Esku hartzea.....	14
4.1.2 Helburuak.....	15
4.2 Metodologia.....	15
4.2.1 Testuingurua.....	15
4.2.2 Parte hartzaileak.....	15
4.2.3 Denboralizazioa	16
4.2.4 Galdera-sortaren eta unitate didaktikoaren prozedura	16
4.2.5 Galdera-sorta	17
4.2.6 Unitate didaktikoaren justifikazioa.....	18
4.2.7 Artzikirola: Unitate didaktikoa	19
4.2.8 Análisi estatistikoa	32
4.3 Emaitzak	33
4.4 Eztabaida.....	38
4.5 Ondorioak	41
5 ERREFERENTZIAK	42
6 ERANSKINAK.....	45

1. LABURPENA

Lan honen bitartez hain erabilgarriak eta era berean ezezagunak diren kirol alternatiboetara hurbilduko gara. Kirol alternatiboen eta zehazki Artzikirolaren inguruko berrikuspen bibliografiko bat egiteaz aparte, lan honetan Aiaraldeko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. eta 3.mailako ikasleek Artzikirolaren inguruan duten ezagutza eta interesa aztertu nahi da. Lanaren beste helburu bat Artzikirolaren unitate didaktiko bat aurrera eramateak Artzikirolaren eta kirol alternatiboen inguruko ezagutza eta interesean eraginik duen aztertzea izan da. Bukatzeko, Euskal Herriko ondarea ezagutu, kirol alternatiboen ezagutza bultzatu eta hauen inguruan interesa piztea ere izan du helburu lan honek. Horretarako, Urduñan (Bizkaia) kokatuta dagoen Antzinako Andra Mari ikastetxeko DBH-ko 2. eta 3.mailako kirol alternatiboen inguruko galdera-sorta pasa zaie Artzikirol kirol alternatiboaren unitate didaktiko bat aurrera eraman aurretik, ondoren eta hilabete batera. Modu honetan, Artzikirolaren bitartez eragin pedagogiko ezberdinak jorratu dituzte, hala nola, afektibo, kognitibo eta erlazionatzekoa. Joko alternatiboen inguruko ezagutza handiagoa garatu dute unitate didaktikoa (UD) gauzatu ondoren ($P=0.04$; Efektuaren tamaina, ET, 0.12) UD-aren aurreko ezagutzarekin konparatuz ET ertaina izan zelarik. Bestalde, Artzikirolaren inguruko ezagutzari dagokionez ez da ezberdintasun esanguratsurik eman ($P=0.73$) eta UD aurreko eta ondorengo balioen artean efektuaren tamaina txikia izan zelarik (ET = 0.001). Aplikazio praktikoari dagokionez, lana nahiz eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 3. mailan aurrera eraman DBH-ko maila guztietan aurrera eraman daiteke zenbait aldaerekin.

Hitz gakoak: Kirol alternatiboak, Artzikirol, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Heziketa Fisikoa.

RESUMEN

A través de este trabajo nos acercaremos a los deportes alternativos tan útiles e igualmente desconocidos. Además de realizar una revisión bibliográfica de los deportes alternativos, en este trabajo se ha querido analizar el conocimiento e interés del alumnado de los cursos de Educación Secundaria Obligatoria (ESO) de Aiaraldea en torno al deporte alternativo Artzikirol. Otro de los objetivos del trabajo ha sido analizar si el desarrollo de una unidad didáctica de Artzikirol influye en el conocimiento e interés del mismo y de los deportes alternativos. Por último, se ha querido fomentar el patrimonio del País Vasco, el conocimiento de los deportes alternativos y el interés por ellos. Para ello, se ha realizado y pasado un cuestionario sobre deportes alternativos antes, después y al de un mes de llevar a cabo una unidad didáctica del deporte alternativo Artzikirol a las chicas y chicos de 2º y 3º de ESO del colegio de Nuestra Señora de La Antigua que se sitúa en Orduña (Vizcaya). De este modo, a través del Artzikirol han abordado diferentes influencias pedagógicas, como las afectivas, cognitivas y relacionales. Los alumnos han desarrollado un mayor conocimiento de los juegos alternativos después de la ejecución de la unidad didáctica (UD; $P = 0.04$; Tamaño de efecto, ET, 0.12). Por otro lado, no se han dado diferencias significativas en el conocimiento del deporte Artzikirol ($P = 0.73$), siendo el tamaño del efecto bajo entre los valores antes y después de la UD (ET = 0.001). En cuanto a su aplicación práctica, aunque el trabajo se haya llevado a cabo en 3º de ESO se puede llevar a cabo en todos los cursos de la ESO con algunas variantes.

Palabras clave: Deportes alternativos, Artzikirol, Educación Secundaria Obligatoria, Educación Física.

ABSTRACT

Through this work we will approach alternative sports as useful and equally unknown. In addition to carrying out a bibliographical review of alternative sports, the aim of this work has been to analyze the knowledge and interest of students of the Basic Secondary Education courses of Aiaraldea in the alternative sport Artzikirol. Another objective of the work has been to analyze whether the development of a didactic unit of Artzikirol influences the knowledge and interest in Artzikirol and alternative sports. Finally, the aim was to promote the heritage of the Basque Country, the knowledge of alternative sports and interest in them. For this purpose, a questionnaire on alternative sports was carried out before, after and after a month of carrying out a didactic unit of the alternative sport Artzikirol to the girls and boys of 2nd and 3rd of ESO (Compulsory Secondary Education) of the school of Nuestra Señora de La Antigua, located in Orduña (Vizcaya). In this way, through Artzikirol they have approached different pedagogical influences, such as affective, cognitive and relational ones. Significant results have been obtained since they have developed a greater knowledge of alternative games after the execution of the didactic unit (UD; $P = 0.04$; Effect size, ET, 0.12). On the other hand, there were no significant differences in the knowledge of Artzikirol sport ($P = 0.73$), and the effect size was low between the values before and after the UD (ET = 0.001). As for its practical application, although the work is carried out in the 3rd year of ESO, it can be carried out in all ESO courses with some variations.

Key words: Alternative sports, Artzikirol, Compulsory Secondary Education, Physical Education.

2. SARRERA

Kirol alternatiboak mundu mailan jende askok praktikatzen ez dituzten kirol-modalitateak dira. Ondorioz, gazte ugari ez dituzte ezagutzen eta eskola kirola hauen bultzatzaile ezin hobe izan daiteke. Kirol alternatiboak baliabide eztabaidaekin dira ikasleen garapenaren hainbat alderdi garatzeko (Lara et al., 2015). Horretaz gain, kirol modalitate hauek motibazio handia izan daitezke gaur egungo kirol tradizionalekin gozatzen edo praktikatzen ez duten gazteentzat.

Ildo honetan, Lara et al.-ek (2015) azaltzen dutenez, "Jolas eta kirol alternatiboek funtsezko zeregina dute hezkuntza fisikoan, prestakuntza integralera bideratutako ikuspegi batetik, kirol-errendimendura bideratutakoa baino gehiago" (1.orr). Egile hauekin jarraituz, hezkuntza fisikoko irakasleek kirol alternatiboak egoera anitzetan erabili ditzakete hainbat emaitza lortzeko, hala nola, mugimendu-garapena, lankidetzaren edo talde-lana, errespetua, konpromisoa eta motibazioaren zein ahalmen intelektualaren garapena.

Autore hauek diotenez, ohiko kirolekin konparatuz kirol alternatiboek balio eta konplexutasun handiagoko helburuak dituzte. Gainera, kirol alternatiboak ikasle guztiak integratzeko eta parte hartzeko zereginarekin sortzen dira. Kirol alternatiboak aurrera eramateak kirol-jardueran ikasle guztien integrazioa sustatzen du. Kirol alternatiboak hezkuntzaren alderdien defendatzaile nagusietako bat dira, eta horrekin batera pentsamendu moralaren hazkundean eragiten dute (Hernández, 2007).

Euskal Herrian, zehazki Artziniegan (Araba), sortutako kirol alternatibo bat Artzikirola da. Kirol alternatiboak bultzatzeko eta gure ondarea sustatzeko gorputz hezkuntzako (GH) saioetan Artzikirola erabiltzea aukera ezin hobe izan daiteke. Artzikirola futbola, eskubaloia eta errugbiaren nahasketa da. Kirol alternatibo honetan neska eta mutilak elkarrekin jokatzen dute, talde mixtoak eratuz.

Nire jakintzaren arabera, ez dago ikerketarik pertsona gazteetan kirol alternatiboen eta Artzikirolaren inguruko interesa eta ezagutza aztertu duenik. Beraz, lan honetan kirol alternatiboen eta Artzikirolaren inguruko berrikuspen bibliografiko bat egiteaz aparte, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. eta 3.mailako ikasleek kirol alternatiboen eta zehazki Artzikirolaren unitate didaktiko bat aurrera eramateak Artzikirolaren eta kirol alternatiboen

inguruko ezagutza eta interesean eraginik duen aztertzea izan du helburu, horretarako hiru galdetegi aurrera eraman dira. Lehenengoa unitate didaktikoa egin aurretik, ikasleen aurre ezagutzak eta interesak ikusteko, unitate didaktikoa aurrera eraman ondoren bereganatutako ezagutzak eta interesak aztertzeko eta hilabete batera ikasleek ezagutzak barneratuta zeuden aztertzeko. Bukatzeko, Euskal Herriko ondarea ezagutu eta gozatzeko Artzikirol kirol alternatiboaren unitate didaktikoaren bitartez ikasleek aukera izan dute gure ondarea ezagutu, kirol alternatiboen ezagutza bultzatu eta hauen inguruan interesa pizteko.

3. MARKO TEORIKOA

3.1 Kirol alternatiboak

3.1.1 Hurbilketa kontzeptuala

Barberok (2000) kirol alternatibotzat jotzen du tradizioaletik desberdintzen den kirol oro, hala nola, material ezberdina erabiltzen duten kirolak. Hernándezek (2007), bestalde, honela definitzen du kirol alternatiboa: "Ohiko erduekin kontrajartzen diren eta parte-hartze handiagoa eta/edo gizarte-balioen garapen zehatza lortu nahi duten kirolen multzoa, erregelamendu-aldaketen eta/edo material berriaren erabileraren bidez". Autore honek, gainera, ikasleak horrelako kirolean duen inplikazioaren garrantzia nabarmentzen du; izan ere, parte hartze aktiboaren bidez kirola ezagutzeko aukera ematen du, eta bertan aztertu, erabaki eta gauzatzen ditu bere erantzunak testuinguru jakin batean. Requenak (2008) dioen bezala, kirol alternatiboek elkarlaneko kirolen ezaugarriak partekatzen dituzte, baina, horrez gain, lehia ere izan dezakete, hau kirolaren helburu nagusia ez den arren. Izan ere, ikasleen parte hartzeari garrantzi handiagoa ematen zaio. Bestalde, Jiménezek (2010) proposatzen du Espainiako jolas alternatiboen agerpena Madrilgo Soin Hezkuntzako Erakunde Nazionalak INEFek 90eko hamarkadan egindako mintegietatik abiatuta sortzen dela. Jatorrian, mintegi hauek "2000. urterako kirol alternatiboak" deitu ziren, ondoren "joko eta kirol alternatiboak" izena onetsi zen. Mintegi horien bidez hezkuntza fisikoko programak berritu nahi izan ziren eta "guztiontzako kirola" kontzeptura hurbildu, kirol-jarduera berriak erabiltzeari esker.

Kirol alternatiboaren definizio guztiek ideia berari jarraitzen diote, lotura bat partekatzen dute eta hainbat alderdi azpimarratzen dituzte: parte-hartzea,

balioen garapena, lehia-emaizari ahalik eta garrantzi txikiena ematea eta, aldiz, parte hartze handiari, material berritzailea erabiltzeari garrantzi handiagoa ematea. Gainera, hauek kirol estandarretik eta tradizioaletik aldentzen dira eta helburu zehatzak bilatzen dituzte: gazteen interesa eta parte hartzea (neska zein mutil) handitzea eta inklusioa sustatzea.

3.1.2 Kirol alternatiboen ezaugarriak

Muñozek (2009) kirol alternatiboak izan behar dituzten ezaugarria nagusiak ondorengoak direla aipatzen du:

- Jarduerak herritarren beharrei eta interesei erantzutea.
- IKTak aprobetxatzea material berriak erabiltzeko eta, jolas eta kirol desberdinak sortzeko.
- Ohiko instalaziorik behar ez duten jarduerak lehenestea; gure inguruneak eskaintzen dizkigun aukerak aprobetxatzea.
- Ohiko instalazioen alternatiba berriak ikertzea, eta horretarako, beste aukera gehiago sortzea edo aldatzea.
- Kirol alternatiboetan alderdi ludikoa eta aisialdikoa lehenestea alderdi lehiakorraren gainetik.
- Kirol-jarduera ugari dagoenez, ahaztu edo urrundu egin diren modalitateetan eragin beharko da, bai eskola- eta udal-programetan, bai jolas-programetan.
- Jolas eta kirol tradizionalak sustatzea gure herri-kultura artxibatze bide gisa.
- Kirol-jarduerak aukeratzea, ahalegin, zailtasun eta arrisku mota bezalako alderdi garrantzitsuak kontuan hartuta.

Gainera, Martínezek (2018) azaltzen du garrantzitsua dela Hezkuntza Fisikoaren arlotik bizitza osoan zehar egin daitezkeen jarduerak ezagutaraztea. Horretarako, eskura ditugun jolas eta kirol aukera zabalaren oinarri tekniko-praktikoak ezarri behar dira, ikaskuntza-prozesua amaitu ondoren pertsona guztiak gai izan daitezen horiek praktikatzen jarraitzeko. Horrela, denborak aurrera egin ahala jarraitutasuna bermatzen da, aukeratzen den kirola edozein dela ere.

Era berean, Hernándezek (2007) kirol konbentzionalen eta alternatiboen arteko aldeak aztertzen ditu, eta kirol alternatiboen ondorengo ezaugarriak nabarmentzen ditu:

- Partaidetza eta gizarte-balioak lehenestea.
- Instalazioak eta material eraldatzailea erabiltzea, eta birziklatu ahal izatea.
- Jardueraren berritasunarekiko motibazio-maila handia ematea.
- Banakako beharrak asetzeko aukera ugari izatea.
- Hezkidetzari eta lankidetzari mesede egitea.
- Eskakizun teknikoak murriztea.

Martínez (2018) Hernandezek (2007) aipatzen duenarekin bat dator. Era berean, kirol konbentzionalean gertatzen den ez bezala, Martínezek (2018) adierazi du ez daukatela derrigorrez parte-hartzaileek kirol-modalitate batera egokitu beharrik, baizik eta kirola pertsonen beharretara egokitu daitekeela, ikasleak protagonista bihurtuz. Honela, jokabide motorren eta gaitasunen ikaskuntza lor daiteke, bai ikasleentzat eta baita irakasleentzat ere motibagarriagoa eta esanguratsuagoa den testuinguru batean.

Azken urteetan, Hezkuntza Fisikoaren eremuan kirol alternatiboei buruzko interes handia sortu da (Ferrerres, 2004). Izan ere, ikasgelako proiektuetatik abiatuta, beste kirol alternatibo batzuk sortzen laguntzeko mekanismoak planteatu dira.

3.1.3 Kirol alternatiboak heziketa fisikoan

Parra eta Antsok (2008) esaten dutenez, gaur egun kirol tradizionalak ez dira oso motibagarriak ikasleentzat Hezkuntza Fisikoko eskoletan, batez ere, irakasleek gehiegi erabiltzen dituztelako. Esperientzia berriak sortzeak eta ikasleen motibazio faltak joko eta kirol berriak sortzea eragin dute.

Honekin lotuta, Lara eta Cachoren arabera (2010), kirol alternatiboak oso erabiliak izan dira azken urteetan; hala ere, irakasleen artean bada sektore bat, ezjakintasunagatik edo dokumentazio ezagatik, heziketa fisikoko klaseetan kirol tradizionalak maizegi erabiltzen dituenak. Beraz, autore horien arabera, jolas eta kirol alternatiboak ez dira espero diren hezkuntza-mailetara iritsi, hau da, baliabide hauek ez dira egunerokotasunean gehiegi erabiltzen, baina egia da kirol alternatiboen erabilera goranzkoa dela. Ildo berean, Hernándezek (2007) honako hau dio: "Azken hamarkadetan, Heziketa Fisikoko jarduera alternatiboak txertatu dituzte, eta, horrela, garapen-ikuspegi berriak bultzatu dira" (23orr).

Esan genezake 80ko eta 90eko hamarkadetan kirol alternatiboak sortu zirenetik, kirol alternatiboen erabilera nabarmen handitu dela eremu guztietan. Zehazki, eskola-eremuan, hasiera batean, aurrera egin da jolas-ikuspegi handiagoarekin, eta ordura arte eremu horretan ezezagunak ziren materialekin (palak, malabareak, indiaka, etab.) egoera jakin eta berriak bilatzeari hasi zioten. Alde horretatik, kirol alternatiboen helburuen proposamen bat egin da, hezkuntza-eremuan hauek errazago txerta daitezten. Era berean, joko edo kirol horien bidez lortu nahi diren helburuak bat datoz maila nazionaleko eta maila autonomikoko Hezkuntzako Kurrikulumarekin Arrazoi horiengatik, hezkuntza-eremuan jolas eta kirol alternatiboen erabilera defendatzen da; izan ere, kurrikulumaren helburuak betetzeaz gain, modu egokian gauzatuz gero, motibagarriak izan daitezke.

Eskola-eremuan jolas eta kirol alternatiboak sartzearen defentsa irmoa egin arren, ez ditugu alde batera utzi nahi ohiko jolasak eta kirolak, horiek berebiziko garrantzia baitute curriculum-beharrak betetzeko. Bien multzoak berekin dakar eduki pedagogikoak garatzeko beharrezko osagarria izatea.

3.2 Artzikirola

3.2.1 Artzikirolaren nondik-norakoak

Artzikirola 2007. urtean Artziniegan (Euskal Herrian) sortu zen José Ramón del Rey-ren eskutik. Kirol honek, futbola, eskubaloia eta errugbian erabiltzen diren joerak oinarritzat hartuz hezkidetzaren eragitea du helburu, eta honela emakume zein gizonen aukera berdina izatea jardura fisikoa egiten duten bitartean. Izan ere, kirol honek ez du kontaktu fisikoa eta indarra helburutzat hartzen, honela, emakume eta gizonen artean oreka handiagoa dago. Beraz, nahiz eta Artzikirolak kirol tradizionalak oinarritzat hartzen dituen, kirol hau guztiz moldatua dago ikasleen parte hartzea sustatzeko asmoz.

Artzikirolaren aspektu aipagarri bat da eskuak eta hankak erabili daitezkeela baloiarekin kontaktua izateko. Horretaz gain, abilezia fisikoak eta batez ere abiadurak eragin handia izaten du. Artzikirola lankidetzan eta aurkaritzan oinarritutako kirola da. Kirol honetan jokalarien abileziak eragina izaten du jokoaren aurrera eramateko orduan. Gainera, Artzikirolak, Heziberri 2020-k adierazten duen moduan, bi eduki multzo kontuan hartzen ditu:

Jarduera fisikoa eta osasuna; eta bestalde, mugimendu kultura: aisia eta denbora librerako hezkuntza. Horretaz gain, Blanco eta Amerikak (2012) adierazten duten moduan, Artzikirolak eragin pedagogiko ezberdinak kontuan hartzen ditu, hala nola, afektiboak (kontaktu fisikoa onartzea eta errespetua erakustea), kognitiboak (arerioen asmoak, markaketak eta desmarkaketak aurreikustea), biologikoak (gainontzeko taldekako kirolean zein jokoetan suertatzen den ahalegin fisikoari eustea), erlaziokoak (aurkaritza arautzea eta arauak onartzea), eta azkenik erabakiak eragiten dituztenak (esparru librean erabilpena, iskintxoaren erabilpena eta ziurgabetasunetako egoeretan arazoei aurre egiteko gaitasuna izatea).

3.2.2 Artzikirolaren arautegia

- Jokalekua: Aretoko futbol edo eskubaloi zelai batean jokatzen da, zehazki, 40x20 m edo 36x18 m-ko zelai batean. Horretaz gain, beste osagai hauek ditu: zelaia erdibitzen duen erdiko marra, bi ate (3x2 m), penalti puntua atetik 7 m-tara eta atetik 6 m-rainoko area.
- Baloia: Goma aparreko baloi bat edo infantil mailako boleiboleko baloi bat.
- Jokalarien partehartzea: 6 jokalariz osatutako bi taldeen artean jokatzen da, pertsona bat atezaina delarik. Jokalarien arteko aldatetak jarraian egin daitezke epaileari baimena eskatu gabe. Taldeak gehienez 15 jokalariz osatuta daude eta taldeak mistoak dira (gizon eta emakumeak).
- Partiduaren iraupena: 15 minutuko 4 zatiz osatuta dago partidua. Lehenengo, eta laugarren zatien arteko atsedena 2 minutukoa da, aldiz, bigarren eta hirugarren zatien arteko atsedena 5 minutukoa.
- Baloia erabilpena:
 - Esku zein oinarekin jolastu daiteke. Baloia eskuan eramanda kontrakoak harrapatu zaitzake eta falta adieraziko du epaileak. Hori dela eta, kontrakoak ukitu baino lehen baloia lurrera eramane behar da, eta ondoren golera bota eta kide bati pasatu. Jaurtiketak oina zein eskuarekin egin daitezke.
 - Baloia airean dagoenean, eskuarekin zein oinarekin hartu daiteke baina lurrera berriz botatzean norberak ezin du berriro eskuarekin hartu.

- Kornerrak, alboko sakeak eta faltak ateratzeko 6 segundo daude gehienez eta eskuarekin eta oinarekin atera daitezke.
- Sakeetan aurkaria aurrean jarri daiteke, alboko marra ukitu gabe.
- Gola lortzeko baloia jaurti edo kolpatu daiteke (eskuz zein oinez).
- Atezainak ez du jokatzeko leku zehatzik, edozein tokira joan eta jokalaria arrunta bihurtzen da.
- Areak atezainari baloia erortzen bazaio berriz hartu dezake, baina areatik kanpo ezin dezake hartu
- Gola sartzean baloia atezainak hartu eta berriz ateratzeko 6 segundo baino ez ditu.
- Penaltia jaurtitzean atezaina ateko marran eta jaurtitzaila 7 m-ko marraren atzean kokatzen da.
- Jokoaren hasieran lehenengo eta bigarren zatietan talde berak ateratzen du zelai erditik. Hirugarren eta laugarren zatian beste taldeak aterako du.
- Gola lortu daiteke alboko marratik edo falta bat zuzenean botatzean.
- Puntuazioa: Gol bat puntu bat da eta esku zein oinarekin sartu daiteke.
- Arau-haustea: Falta batekin adierazitako arau-haustea:
 - Indarra erabiltzea, aurkariari helduz eta bultza eginez, edota joz.
 - Jokalari berak baloia esku batetik bestera pasatzea.

4. KIROL ALTERNATIBOEN INGURUKO ESKU-HARTZE IKERKETA

4.1 Esku-hartzearen justifikazioa eta helburuak

4.1.1 Esku hartzea

Ikuspegi tradizionaletik, kirola gure gizartean errotutako adierazpide nagusietako bat da, eta, horretaz gain, ikastetxeetan zati garrantzitsua da hezkuntza-zikloaren barruan (Casanova, 2012). Ildo horretan, kurrikulumaren plangintzak eta programazioak irakaslearen ardura nagusietako bat dira (Usabiaga eta Martos i García, 2012); izan ere, kurrikuluma malgutzeak aukera ematen dio irakasleari bere jarduerak hautatzeko, beti ere, kurrikulumaren edukietara eta ingurunearen eta ikasleen ezaugarrietara egokituta. Horrela, ikastetxe eta irakasleek kurrikulumean aurrera emango diren ekintzen azken erabakiak hartzen dituzte. Usabiagak eta Martos i García (2012) adierazten duten moduan, ikastetxeen eta irakasleen ahalmen horren ondorioz, programazio didaktikoak konbentzionalegiak izaten dira, ezagutzen denaren eta errepikatzen denaren alde egiten dute normalean. Jolas eta kirolen blokean gauza bera gertatzen da; izan ere, ezagunenak, praktikatuena eta komunikabideetan eragin handiena duten kirolak errepikatzen eta praktikatzeko dira gehien ikastetxeetan (Borrego et al., 2015; CSD, 2011; García-Canto eta García-Soler, 2015), honela, kirol ezezagunei bidea itxi egiten zaie.

Irakasle askok kirol tradizionalak erabiltzen dituzte haien klaseetan arrakasta izateko, izan ere, kirol tradizionalak ezagunagoak dira ikasleen artean eta horrela, hauek lekua irabazten dute heziketa fisikokoko klaseetan eta kontrarioki kirol alternatiboak bigarren maila batean uzten dituzte hezkuntza-berrikuntza burutzeko orduan. Honela, beste proposamen desberdin eta berritzaile batzuk ikusi eta praktikatzeko premia alde batera uzten dute, eta ez dira errutinatik ateratzen (Piere & Estrada, 2015).

Alde horretatik, kirol alternatiboak oso aukera interesgarria dira gorputz hezkuntzako arloan ezartzeko, baliabide bikainak baitira haurraren garapenaren hainbat alderdi lantzeko, baldintza fisikoetatik hasi eta balio positibo edo alderdi kognitibo ugariraino, eta gainera, motibazio-iturri interesgarria dira ikasleentzat (Aromando, 2013; Arufe, 2016; Fierro, Haro, & García, 2016).

4.1. 2 Helburuak:

Helburu nagusiak:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. eta 3.mailako ikasleek kirol alternatiboen eta zehazki Artzikirolaren inguruan duten ezagutza eta interesa aztertzea.
- Artzikirolaren unitate didaktiko bat aurrera eramateak Artzikirolaren eta joko alternatiboen inguruko ezagutza eta interesean eraginik duen aztertzea.

Azpi helburuak:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. eta 3. mailako ikasleek kirol alternatiboen inguruan duten ezagutza handitu eta interesa piztea.

4.2 Metodologia

4.2.1 Testuingurua

Artzikirolaren unitate didaktikoa Antzinako Andra Mari ikastetxean aurrera eraman da. Ikastetxea Urduñan kokatuta dago, eta Bizkaiko lurralde historikoko hiri bakarra da. Bizkaiko lurralde honek Arabako eta Burgoseko lurraldeak ditu inguruan: bailara zabal batean, baso sarriz inguratuta dago, Nerbioi ibaiaren ibilguko Gorobel mendizerran.

Antzinako Andra Mari ikastetxea Urduñaren Foru Plazan dagoen kristau eskola da eta B eredu eskaintzen du. Zentroa handia da, bertan Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa eskaintzen baita eta gainera, Urduñako biztanleak ez ezik hurbileko herrialdeetako umeak ere joaten baitira Antzinako Andra Mari ikastetxera. Guztira ikastetxean 459 ikasle daude eta haietatik 92 Haur Hezkuntzakoak dira, 176 ikasle Lehen Hezkuntzakoak eta 191 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergokoak.

Eskola berritzailea da, irakaskuntza eta ikaskuntza-prozesuetan ikuspegi konstruktibistaren aldeko apustua egiten du. Ikuspegi honek, ezagutza eraikitzea dakar, norberaren interes eta beharretatik abiatuz. Horretaz gain, kooperazioari garrantzi handia ematen diote.

4.2.2 Parte hartzaileak

Unitate didaktikoa Antzinako Andra Mari ikastetxeko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3.mailako ikasleek parte hartu dute, hau da, 14 eta 15 urte bitarteko 22 ikasle parte hartu dute, 8 neska eta 14 mutil guztira. Ikasle talde osoa parte hartzailea da gorputz hezkuntzako ikasgaietan eta ez dago behar

bereziak dituzten ikaslerik ikas talde hobetan. Bestetik, 2.mailako 14 ikasleek ere parte hartu dute, hauen artean 6 neska eta 8 mutil, 13 eta 14 urte bitartekoak. Ikasle guztiek Artzikirola ezagutzen zuten eta jokatu zuten, Lehen Hezkuntzan landu zutelako eta gainera, eskolan iaz txapelketa bat egin zelako. Hala ere, ikasle guztiek ez zuten parte hartu txapelketan 36 ikasleetatik 14 ikasleek baino ez zuten parte hartu ospatutako txapelketan, honakoa antzeman dugu ikasleek galdetegiaren lehenengo bi galderak erantzun ondoren.

4.2.3 Denboralizazioa

Denboralizazioari dagokionez, lehenik ikasleei informazio orria eman zaie (ikus 1. Eranskina) gauzatutako galdetegia eta unitate didaktikoaren berri izateko. Ondoren, galdera-sorta aurrera eraman dute haien aurre-ezagutzak eta interesak antzemateko. Geroago, Artzikirolaren inguruko unitate didaktikoa, horretarako 50 minutuko 5 saio erabili izan zituzten. Eta azkenik, amaierako galdera-sorta haien ezagutzak eta interesak aldatu diren ikertzeko. Galdetegietan ateratako informazio oro, Helsinkiko adierazpenekin bat dator eta anonimotasuna eta konfidentziasuna bermatzen dira.

4.2.4 Galdera-sortaren eta unitate didaktikoaren prozedura

Proposamen didaktikoa aurrera eramateko ikasle guztien maila eta zailtasunei erreparatu izan zaie, ikasle guztiek modu egokian parte hartu zezaten. Lan honetan Antzinako Andra Mari ikastetxeko bi talde parte hartu dute DBH-ko 2.mailako eta 3.mailako ikasleak. Honela, Artzikirolaren ezagutza eta interesa 36 ikasleen parte hartzearen bitartez aztertu da. Prozedura honakoa izan da: lehendabizi ikasleek aurre ezagutzak eta interesak aztertzeke galdetegi bat jorratu dute, ondoren unitate didaktikoa aurrera eraman da eta azkenik, bigarren galdetegi bat bete dute haien ezagutzak nagusitu diren eta interesa handitu den aztertzeke.

Galdetegia aurrera eraman baino lehen, 2.mailako 3 ikasleekin eta 3.mailako 2 ikasleekin froga pilotu bat egin zen galderak modu egokian ulertzen zirela antzemateko. Ondoren, lehenengo galdetegia urtarrilaren 11an egin zen 10:00etan 3.mailako ikasleekin, unitate didaktikoa aurrera eramandako lehenengo egunean. Aitzitik, 2.mailako ikasleekin urtarrilaren 12an egin zen 15:00etan. Lehenengo, ikasleek 10 minutuetan galdetegia gauzatu zuten eta ondoren unitate didaktikoaren lehenengo saioa aurrera eraman zen. Galdetegia eta unitate didaktikoa aurrera eramateko lehenengo zatia ikasgela

batean gauzatu zen, ikasleek era egokian idatzi aha izateko eta unitate didaktikoaren hasieran bideo bat ikusi behar zelako.

Unitate didaktikoaren dagokionez, honakoa aurrera eramateko 5 saio aurrera eraman dira. Saioen garapena 2021/22 ikasturteko bigarren hiruhilekoan aurrera eraman da, honela unitate didaktiko honetan Heziberri 2020-k adierazten dituen bi bloke landu dira. Alde batetik, Jarduera fisikoa eta osasuna eta bestalde, mugimendu kultura: aisia eta denbora librerako hezkuntza.

Unitate didaktiko hau kirol alternatiboen interesa bultzatzeko erabili izan da. Ikasleek kirol alternatiboen inguruko interesa sustatu nahirik Urduñatik oso gertu sortu zen kirol alternatiboa aukeratu da, honela Artzikirola kirol alternatiboa ezagutzeko aukera paregabea eman baita.

Bigarren galdetegiari dagokionez, otsailaren 18an bete zuten 10:00etan 3.mailako ikasleek. Eta, egun berdinean 15:00etan 2.mailako ikasleek. Hau da, talde bakoitzak unitate didaktikoa bukatutako egunean gauzatu zuen azkeneko galdetegia.

Honetaz gain, hilabete bat pasatu ondoren, martxoaren 18an, berriro ere galdetegi berdina bete zuten haien ezagutzak eta interesak aldatu ziren aztertzeke helburuarekin. Hori dela eta, azkeneko galdetegia martxoaren 18an bete zuten 2. eta 3. DBHko ikasleek.

4.2.5 Galdera-sorta

Aurretik aipatu bezala, kirol alternatiboen inguruko interesa eta aurre ezagutzak aztertzeke galdera-sorta bat aurrera eraman da. Galdera-sorta aurrera eramateko Molinak (2008) egindako ikerketa eredu moduan erabili da, hala ere, galdetegia moldatua izan da (ikus 2. eranskina). Gainera, Artzikirola kirol alternatiboaren inguruko unitate didaktikoa aurrera eraman ondoren galdetegi berdina aurrera eraman da, kasu honetan haien aurre ezagutzak eta interesak aldatu diren aztertzeke helburuarekin. Horretaz gain, unitate didaktikoa bukatu eta hilabete batera, berriro galdetegia bete dute ikasleek emaitza guztiak aztertu ahal izateko.

Bi galdetegiek 10 galderaz osatutakoak izan dira. Bi galdetegietan galdera batzuk berdina eta beste batzuk ezberdinak izan dira, ikasleen erantzun ezberdinak konparatzeko egin dira. Lehenengo galdetegia hasi aurretik bi galdera egin dira Artzikirola aurretik joratu zuten edo ez jakitzeko. Bestalde, bi galdetegietan ikasleen adina eta sexua galdetu zaie, baina inoiz ez beraien izen-

abizenak, galdetegia anonimoa zelako. Lehenengo galdera-sortan egindako 10 galderetan, haien aurre-ezagutzak eta interesak jakiteko egin da (ikusi 2. eranskina). Ondoren, bigarren eta hirugarren galdera sortak unitate didaktikoa egin ondoren eta hilabete batera egindakoa haien interesa aldatu den eta ezagutzak bereganatu diren aztertzeko egin dira (ikusi 2. eranskina). Galderei erantzuteko modu ezberdinak izan dituzte, izan ere, galdera batzuetan 1etik 5era erantzuteko aukera izan dute, 1 oso baxua eta 5 oso altua izanik. Bestetik, beste galdera batzuetan hainbat erantzunen artean aukeratu dute eta azkenik, bai edo ez erantzuteko galdera bat izan dute bigarren galdetegian.

Ebaluazioari dagokionez, ikasleen erantzunak antzeman dira Artzikirolaren interesa eta ezagutza aztertzeko. Hori dela eta, aipatu bezala hiru galdera-sortak kontuan hartu dira ikasleen ezagutzak nagusitu diren eta interesa handitu den aztertzeko. Ebaluazioa modu global batean egin da ikasleen adina, sexua eta hasierako esperientzia kontuan hartuz eta ez dira ikasleak modu indibidualean ebaluatu.

4.2.6 Unitate didaktikoaren justifikazioa

Urduñatik oso gertu sortutako kirol alternatibo bat aukeratu da unitate didaktiko hau gauzatzeko. Izan ere, lankidetzak, dinamismoak eta hezkidetzak lehenetsuna izaten duten kirolei garrantzia eman nahi izan da. Hori dela eta, Artzikirol kirol alternatiboa sustatu da, haurrek etorkizunean kirol tradizionalen alternatibak ezagutzeko eta aisialdian praktikatzeko aukera izan dezaten. Gainera, Artzikirola Urduñatik oso gertu sortua izan da, Artziniegan hain zuzen ere. Honakoa kontuan hartuz, unitate didaktikoaren bitartez gure ondarea sustatu dezakegu. Kurrikulumean Euskal Herrian sortutako kirolei garrantzia ematen zaie, Heziberri 2020ko 236/2015 dekretuan adierazten den moduan: "Euskal Herriko jolas- eta kirol-tradizioak ezagutzea, interpretatzea eta haietan parte hartzea, eta beste kultura batzuetakoak ere aztertzeko eta haien berri jakitea, bai eta haiekin lotutako askotariko jarduerak fisikoak, adierazpen-jarduerak eta kirol-jarduerak praktikatzeko ere, herrialde bakoitzeko identitatea eta kultura-balioak ulertzeko eta baieztatzeko, eta aldi berean aberastasuna eta inklusioa dakartela ulertzea eta balioestea".

Artzikirola lankidetzak- oposizio kirol dinamikoa da. Kirol honen bitartez, parte hartzea sustatu nahi da, jolasaren erritmoa handituz eta ikasleen taktika hobetuz. Gainera, taldeek mistoak izan behar dute nahitaez, eta, beraz, sexuen arteko berdintasuna sustatzen da. Azken finean, lan honetan, kirol

tradizionaletik haratago dagoen Artzikirol kirol alternatiboa sustatu da, ikasleei alternatiba bat erakutsiz.

4.2.7 Artzikirola: Unitate didaktikoa

SAIOEN SEKUENTZIA			
Saioa	Helburua	Edukia	Antolaketa
1	Artzikirola ezagutu eta modu egokian pase eta harrerak egin.	Paseak eta harrerak	Bakarka, binaka eta talde txikietan (hiru pertsona) eta talde handietan.
2	Jaurtiketak egiten ikasi posizio eta distantzia ezberdinetatik.	Jaurtiketak	Bakarka, binaka eta talde txikietan (hiru pertsona) eta talde handietan.
3	Baloia manipulatu egoera ezberdinetan.	Baloiarekiko familiarizazioa kooperazioan.	Bakarka eta talde txikietan (hiru eta lau pertsona).
4	Artzikirolaren oinarri tekniko-taktikoak ikastea.	Oinarri tekniko eta taktikoak (desplazamenduak, kontrola, harrerak eta baloia jotzea).	Hirunaka eta talde handietan.
5	Oinarri tekniko-taktikoak praktikan jartzea Artzikirol jokoaren egoera erreala aurrera eramaten den bitartean.	Artzikirolaren mini txapelketak.	Binaka eta talde handietan.


OINARRIZKO GAITASUNAK	
1. Norbera izaten ikasteko konpetentzia	Gaitasun hori garatzeko, ikasleei hainbat jarduera eskaini dizkiegu, jolas- eta kirol-jarduerak, aisialdian erabiltzeko.
2. Elkarbizitzarako konpetentzia	Gure unitate didaktikoan egin ditugun jarduera fisikoek, jolasek eta kirolek, duten izaeragatik, ikasleengan gizarte-balioak sustatzen laguntzen dute, besteak beste, berdintasuna, lankidetzeta, talde-lana, integrazioa, hezkidetzeta eta kideekiko errespetua.
3. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia	Norberaren jarduera fisikoaren plangintzan autokudeaketa sustatuko da, ikasleek norberak bere burua gainditzeko eta iraunkortasun-jarrerak erakutsi beharko dituzte, zeregin zailak gainditzeko.
4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia	Talde-kirol tradizionalak eta kirol-adierazpen berriek (kirol alternatiboak) oinarrizko gaitasun hori garatzen lagundu dute, arauzko oinarrizko alderdien, alderdi materialen eta exekuzio teknikoaren bidez.
5. Ikasten ikasteko konpetentzia	Jarduera fisikoak, jolasak eta kirolak tresna baliagarriak dira ikasleek talde-lanerako trebetasun batzuk garatu dituzte.

Saioen garapena:

1. SAIOA		
EDUKIAK	Paseak eta harrerak.	
HELBURUAK	Artzikirola ezagutu eta modu egokian pase eta harrerak egin.	
DENBORA	MATERIALA	ELKARKETA
50'	Proiektorea, baloiak, petoak eta konoak	Bakarka, binaka eta talde txikietan (hiru pertsona) eta talde handietan.
HASIERAKO AZALPENA		20'
<p>Unitate didaktikoa hasi baino lehen ikasleek lehenengo galdera-sortari erantzun diete (ikus 2. eranskina).</p> <p>Ondoren, unitate didaktikoari hasiera emateko irakasleak Artzikirolaren inguruko nondik norakoak azaldu ditu eta kirolaren inguruko bideo bat jarri du: https://www.youtube.com/watch?v=bBMB5IhdWRg.</p> <p>Ondoren irakasleak galdera batzuk egin ditu kirolaren inguruan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ezaguna egin zaizue? • Zein da kirol honen helburua? • Zer lantzen da kirol hau praktikatzen dugun bitartean? • Zein kirolen antza du artzikirolak? <p>Bi asteetan zehar zer egingo zuten azaldu zitzaaien. Hasiera batean kirolarekiko kontaktuan jarri ziren; paseak, harrerak, jaurtiketak, baloiarekiko familiarizazioa eta oinarri tekniko eta taktikoak ikasiz. Amaieran Artzikirol txapelketa txikiak aurrera eramanez, unitate didaktikoari amaiera emanez.</p>		
BEROKETA		10'
<p>Pertsona bakoitzak baloi bat izanda eta irakaslea markatutako gune batean zehar mugitu da bere baloiarekin. Irakasleak honako aginduak eman ditu:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1- Baloia eskuetan eramanez ibiltzen hasi. 2- Intentsitatea igo (lasai ibiltzetik intentsitate altuago batera pasa). 3- Baloia hanketara pasa eta honakoa kontrolatuz markatutako eremutik mugitu. 4- Baloia eskuetara pasa eta boteak emanez mugitu. 5- Intentsitatea gehiago igo (korrika lasaia) baloiari boteak emanez. 		

6- Baloia esku edo hankan eramanez (ikasleek erabaki) kontrolpean eraman.
Intentsitatea gehiago igo baloia lehengo eskuz eta ondoren hankekin eramanez.

IRUDIA





ATAL NAGUSIA

20'

Lehenengo jardueran partaideak binaka jarrita:

1. Paseak distantzia motzean lehenengo esku batekin (bakoitzak normalean erabiltzen duena, "esku ona") eta ondoren beste eskuarekin.
2. Paseak distantzia ertain eta handian lehenengo esku batekin (bakoitzak normalean erabiltzen duena, "esku ona") eta ondoren beste eskuarekin.

IRUDIAK




*Geziek pase eta harreraren zentzua adierazten dute.

Bigarren jardueran hirunaka jarrita, hirukote bakoitzari baloi bat eman zaio, talde bakoitza eremu zehatz batean sartuta egon da momentu oro.

Baloia eskuetan izanda hasi dira eta paseak eman dituzte haien artean. Paseak hanka zein eskuekin bitartez gauzatu dituzte eta baloia lurra ukitzean hirukotea eliminatua geratu da. Hori dela eta bi aukera zeuden, taldekide batek pasea jaso ez izatea eta lurra ukitzea edota beste hirukote batek bere baloia jaurti eta beste talde baten baloiari ematea beste taldea eliminatzeko.


IRUDIA



* Geziek pase eta harreraren zentzua adierazten dute.

Hirugarren jardueran bi talde sortu dira eta eremu baten barruan egon dira bi taldeak, baloi bat izan dute eta talde bakoitzaren helburua baloia eskuetan izanda 10 pase ematea izan da.



IRUDIA



BAREALDIA


5'

Ikasleek lasaitasunera bueltatzeko luzaketak egin dituzte.

2. SAIOA		
EDUKIAK	Jaurtiketak.	
HELBURUAK	Jaurtiketak egiten ikasi posizio eta distantzia ezberdinetatik.	
DENBORA	MATERIALA	ELKARKETA
50'	Konoak, petoak, baloiak, uztaiak eta klarionak markak egiteko,	Bakarka, binaka eta talde txikietan (hiru pertsona) eta talde handietan.
BEROKETA		15'
<p><u>Beroketaren lehenengo fasea:</u> Ikasle bakoitzak baloi bat hartu du eta gune zehatz batetik porteriara jaurtiketak egin ditu. Porterian uztaiak eta markak jarrita egon dira, hauek ukitzea izan da haien helburua. Lehenengo eskuz aritu dira jaurtiketak eginez eta ondoren hankekin.</p>		
IRUDIA		
<p><u>Beroketaren bigarren fasea:</u> hiru ilara osatu eta horman borobil batzuk egon dira ilara bakoitzarentzat. Bakoitzak banaka horman zegoen borobilaren barruan baloia sartu dute, hurrengoak baloia lurra ukitu gabe hartu eta berriz uztailaren barrura sartu dute. Horrela, ilara osatzen duten pertsona guztiek jaurti arte.</p>		
IRUDIA		
ATAL NAGUSIA		30'
<p><u>Lehenengo jardueran</u> ikasleak binaka jarri dira eta bikote bakoitzak baloi bat izan du. Hasieran bi kideak gune berdinetik hasi dira, kide bat kono batera</p>		

iritzi da (porteriatik gertu). Ondoren, hasierako gunetik beste kideak baloia pasatu dio, bigarren pertsona areara iritzi baino lehen pasea jaso du eta porteriara jaurtiketa bat egin du gola sartuz.

IRUDIA




*Geziek pase eta harreraren zentzua adierazten dute.


Bigarren jardueran hiru talde nagusitan kokatu dira ikasleak eta eremu zehatz bat markatu da kono batzuen bitartez. Horretaz gain, kono horietatik kanpo lauki batzuk egon dira markatuak, karratu hauek tamaina ezberdina eta puntuazio ezberdina izan dute. Taldeen helburua 10 pase egitea izan da eta ondoren karratu batera baloia jaurtitzea. Aurkariak baloia hartu ahal zuten bakarrik airean zegoenean.

IRUDIA




Hirugarren jardueran bi talde nagusi eta bi baloi egon dira, zelaian zehar hiru kono urdin eta beste hiru gorri egon dira, konoak botatzea izan da helburua, hauek hanka zein eskuekin jaurtiketak egiten lortu dute. Talde gorriak kono gorriak jaurti behar ditu eta talde urdinak kono urdinak. Behin baloia hartuta pertsona bakoitzak hiru pauso baino ezin izan ditu egin. Bota beharreko hiru konoak lehenengo bota dituen taldea izan da irabazlea.

IRUDIA	
BAREALDIA	
5'	
Ikasleek lasaitasunera bueltatzeko luzaketak egin dituzte.	

3. SAIOA		
EDUKIAK	Baloiarekiko familiarizazioa kooperazioan.	
HELBURUAK	Baloia manipulatu egoera ezberdinetan.	
DENBORA	MATERIALA	ELKARKETA
50'	Konoa, baloiak, uztaiak eta petoak.	Bakarka eta talde txikietan (hiru eta lau pertsona).
BEROKETA		15'
<p><u>Beroketaren lehengo fasea:</u> Lau kono jarriko dira lauki bat sortuz, pertsona guztiak erdian jarri dira, konoen zehar mugitzen egon dira eta irakasleak aginduak eman ditu (lurrean eseri, etzan, salto bat egin, konoetara joan...) azkena geratutakoa horma azkar ukitu eta berriro laukiaren barrura joan da.</p>		
IRUDIA		
<p>*Geziek ikasleek zein noranzkoan joan behar diren adierazten dute (gertuen daukaten marrara)</p>		
<p><u>Beroketaren bigarren fasea:</u> Lau taldeetan jarrita ilara bat sortu dute eta ilararen 15m-ra kono bat jarri da, lehenengo pertsona konora joan da baloia eskuan izanda eta konora iriztean pase bat eginez ilaran zegoen hurrengo</p>		

pertsonari pasatu dio, ondoren egoera hori errepikatu da guztiek egin arte. Geroago, ekintza berdintsua egin da, baloia eskuetan eramanez konora eta ondoren kideari pasatu baina kasu honetan hankekin.

IRUDIA




* Geziek pase eta harrereren zentzua adierazten dute.

ATAL NAGUSIA

30'

Lehenengo jardueran hiruko taldeetan kokatu dira ikasleak. Hiru gune ezberdin sortu dira. Erdian kono bat egon da eta honen inguruan borobil bat. Beste borobil handi bat ere egon da aurrekoaren inguruan eta bertan pertsona bat kokatu da. Ondoren beste borobil bat eta beste pertsona bat kokatu da eta azkenik, beste pertsona bat. Pertsona hauek konoa babestu dute. Ondoren kanpoko gunean beste hiru kide kokatu dira eta hauek kanpoko ingurunean zehar mugitu dira haien artean paseak eginez eta konoa botatzen saiatu dira.


IRUDIA



Bigarren jardueran lau talde eta lau porteria egon dira. Talde bakoitza bere porteria babesten eta beste porteriaren batean gola sartzen saiatu da.



Hirugarren jardueran bi talde nagusietan eta zelai bat markatu da. Talde bakoitza baloia porterian sartu beharrean uztai batean sartu behar du. Taldeko kideen artean paseak airez egin dira eta baloia eskuz zein oinez eraman dute, baloia aurkariari kentzeko aurkaria ukitu behar da. Horrela falta izango da eta kontrakoak aterako du.



BAREALDIA

5'

Ikasleek lasaitasunera bueltatzeko luzaketak egin dituzte.

4. SAIOA

EDUKIAK	Oinarri tekniko eta taktikoak (desplazamenduak, kontrola, harrerak eta baloia jotzea).	
HELBURUAK	Artzikirolaren oinarri tekniko-taktikoak ikastea.	
DENBORA	MATERIALA	ELKARKETA
50'	Petoak, konoak, baloiak eta zinta itsaskorra.	Hirunaka eta talde handietan.


BEROKETA

15'

Beroketaren lehenengo fasea: Lau talde konoekin markatutako bi zelai ezberdinetan kokatu dira. Baloi bat izan dute eta helburua kontrako zelaira


baloia eramatea eta kontrako zelaian dagoen marran baloia uztea izan da puntu bat jasotzeko. Baloia duen jokalaria bakarrik pauso bat eman ahal izan du eta baloia beste taldekoek airetik bakarrik gelditu dezakete.

IRUDIA



Beroketaren bigarren fasea: Eredu zehatz batean, hiru talde handitan kokatu dira. Talde bakoitzeko pertsona batek peto bat jarrita izan du. Baloia petoa duen pertsonari iristea izan da helburua, horretarako taldekideen artean paseak eta desmarkeak egin dituzte. 10 pase egin ahal dituzte gehienez baloia petoa duen pertsonak hartu baino lehen.

IRUDIA




ATAL NAGUSIA

30'

Lehenengo jardueran hiru talde jarrita kono batzuk egon dira porteriatik 20m. Kide bat konora joan da, eta beste kideak zelai erditik pasea egingo dio. Ondoren besteak harrera egin eta porteriara bota du. Defentsan hirukoteko pertsona bat egon da traba egiten. Ondoren ariketa errepikatu da baina oinarekin pasea eta tiroa egin dute.




Bigarren jardueran lau talde handitan banatu dira ikasleak eta partidu berezia jokatu dute. Zelaia modu horizontalean lau guneetan banatu da eta jokalaria lau gune horietan sakabanaturik egon dira. Helburua izan da bere guneetatik atera gabe ikasleek Artzikirolera jokatzea. Kontuan izan behar zuten beraien posizioetan ere aurkaria egon daitekeela eta baloia eskuan izanda aurkariak ukitzen bazuen falta zela eta kontrakoak atera behar zuela. Aitzitik, baloia hankarekin jokatzen bazuten kendu egin behar zioten, baino aurkaria ukitzea ez zen falta izan. Ondoren jarduera berdina aurrera eraman da baina zelaiaren banaketa marra bertikalak izango dira.




BAREALDIA

5'

Ikasleek lasaitasunera bueltatzeko luzaketak egin dituzte.

5. SAIOA		
EDUKIAK	Oinarri tekniko-taktikoak praktikan jartzea Artzikirol jokoaren egoera erreala aurrera eramaten den bitartean.	
HELBURUAK	Artzikirolaren mini-txapelketak.	
DENBORA	MATERIALA	ELKARKETA
50'	Petoak, konoak eta baloiak.	Binaka eta talde handietan.
BEROKETA		15'
<p><u>Beroketaren lehengo fasea:</u> Bi talde handietan talde bakoitza kontrako aldean jarrita egon da eta zelaia konoekin markatua egon da. Alde bakoitzean taldea osatzen duen baloi kopuru berdina egon da (adibidez: 7 pertsona badaude 7 baloi egon dira). Helburua kontrako zelaira pasatzea, baloi bat hartzea eta berriz zelaira bueltatzea da. Kontrako zelaietan egonda, aurkariak ukitzen badu lurrean eseri beharko da eta kide batek ukitzen badu bakarrik salbatu ahal da.</p>		
IRUDIA		
<p><u>Beroketaren bigarren fasea:</u> irakasleak binaka kokatu dira eta haien artean eskutik heldu dira. Bi talde handi osatu dira eta talde bakoitzari peto ezberdin bat banatu zaio. Talde bat bestearen kontra jokatu da eta gola sartzea izan da helburua. Horretarako baloia eskuz edo hankarekin kolpatu dezakete. Irakasleak txistua jotzean jokalaria bakoitzak talde bereko beste pertsona bati eskua emango dio eta bikotez aldatu dira.</p>		

IRUDIA		
ATAL NAGUSIA		20-25'
<p>Azkenengo saio hau aurrera eramateko lau talde handi sortu dira eta Artzikirol torneo aurrera eramango da. Talde batek beste talde baten aurka jokatu du eta irabazleek finala jokatu dute (lehengo eta bigarren postuak) eta beste bi taldeek hirugarren eta laugarren postuak.</p>		
IRUDIA		
BAREALDIA		10-5'
<p>Ikasleek lasaitasunera bueltatzeko luzaketak egin dituzte. Ikasleei azkeneneko galdera-sorta banatu zaie (ikusi 2. eranskina).</p>		

4.2.8 Analisi estatistikoa

Estatistika deskriptibo arrunta erabili zen maiztasunak, batzbestekoak eta desbideratze estandarrak kalkulatzeko. Kontingentzi taulak erabili ziren sexuaren arabera 10. galderan izandako emaitzen maiztasun banaketak aztertzeko. Khi-karratuaren froga erabili zen azken bi aldagai hauen artean menpekotasuna zegoen edo ez aztertzeko. Wilcoxon-en froga erabili zen momentu ezberdinetan ezagutza maila, gustuko izatea eta interesaren konparaketa egiteko, eta baita taldeen arteko konparaketa egiteko. Zehazki, batetik, 2. eta 3. mailako ikasleen konparaketa egin zen eta bestetik, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko konparaketa egiteko. Tamainaren efektua Eta-karratuaren bidez zehaztu zen <0.06 efektu txikia, 0,06-0,14 efektu

ertaina eta $> 0,14$ efektu handia kontsideratu zirelarik (Maher et al. 2013). *Statistical Package for Social Sciences* programa informatikoaren 27. bertsioa erabili zen analisi estatistikoak egiteko (SPSS Inc., Chicago, USA). Adierazgarritasun maila $P \leq 0,05$ ean ezarri zen.

4.3 Emaitzak

Galdetegiaren erantzunak 3 modutan aztertu dira: 1) 2. eta 3. mailako ikasleak talde bakar bezala hartuta unitate didaktikoa aurrera eraman baino lehen, ondoren eta denbora batera (hilabete batera) emandako erantzunen konparaketa eginez, 2) 2. eta 3. mailaren arteko konparaketa eginez, eta 3) emakume eta gizonezkoen arteko alderaketa burutuz.

1) Unitate didaktikoa aurrera eraman baino lehen, ondoren eta hilabete batera

Lehenengo taulan bigarren eta hirugarren mailako ikasleak talde bakar bezala hartuta joko alternatiboen eta Artzikirolaren inguruan egindako galdetegiaren emaitzak ageri dira. Bertan bost puntu garrantzitsu aztertzen dira: joko alternatiboen ezagutza, Artzikirolaren ezagutza, Artzikirolaren ekintzak abiarazteko nahia, kirol alternatiboen parte hartzea eta kirol alternatiboak gorputz hezkuntzan (GH) lantzearen alde egotea. Honako puntu hauetan unitate didaktikoa (UD) aurretik, ondoren eta hilabete batera lortutako emaitzak aztertu dira. Ikasleek joko alternatiboen inguruko ezagutza handiagoa zuten UD aurrera eraman ondoren ($P=0.04$; Efektuaren tamaina, ET, 0.12) UD-aren aurreko ezagutzarekin konparatuz ET ertaina izan zelarik. Artzikirolaren inguruko ezagutzan ez zen ezberdintasun esanguratsua egon ($P = 0.73$) UD aurreko eta ondorengo balioen artean efektuaren tamaina txikia izan zelarik (ET = 0.001). Ez zen ezberdintasun esanguratsurik egon joko alternatibo ($P = 0.33$; ET = 0.01) zein Artzikirolaren ($P = 0.90$; ET = 0.0002) ezagutzan UD ondoren eta hilabetera izandako datuetan efektuaren tamaina txikia izan zelarik bi kasuetan. Artzikirolaren inguruko ekintzak abiarazteko nahian, kirol alternatiboen parte hartzean eta kirol alternatiboak GH-n gehiago lantzearen aldeko nahian ez zen ezberdintasun esanguratsurik aurkitu galdetegia pasatu zen 3 momentuen artean.

1. Taula: Joko alternatibo eta Artzikirolaren inguruko ezagutza 2. eta 3. mailako ikasleak talde bakar bezala hartuta (N=36).

	Joko alternatiboen ezagutza	Artzikirolaren ezagutza	Artzikirolaren ekintzak abiarazteko nahia	Kirol alternatiboetan parte hartzea	Kirol alternatiboak GH-n gehiago lantzearen alde
Aurretik	1.25 ± 0.69	3.17 ± 0.84	3.42 ± 0.96	3.56 ± 0.87	3.67 ± 0.82
Ondoren	1.69 ± 0.46*	3.25 ± 0.77	3.69 ± 0.71	3.92 ± 0.80	3.81 ± 0.85
Hilabete batera	1.58 ± 0.5*	3.28 ± 0.74	3.86 ± 0.76	3.78 ± 0.72	3.86 ± 0.68

GH Gorputz Hezkuntza. Datuak bataz bestekoa ± desbideratze estandarra dira. * Ezberdintasun esanguratsua unitate didaktikoaren aurretik izandako balioekin konparatuz (P<0.05).

2) 2. eta 3. mailaren arteko konparaketa

Bigarren taulak bigarren eta hirugarren mailako ikasleek, kasu honetan talde bakar bezala hartu gabe, UD egin aurretik izandako datuak erakusten ditu. Hemen ere, aurreko taulan aztertutako bost puntuak ageri dira: joko alternatiboen ezagutza, Artzikirolaren ezagutza, Artzikirolaren ekintzak abiarazteko nahia, kirol alternatiboen parte hartzea eta kirol alternatiboak GH-n lantzearen alde egotea. Joko alternatiboen ezagutzan eta Artzikirolaren ezagutzan ezberdintasun esanguratsuak aurkitu ziren efektuaren tamaina ertaina izan zelarik, hirugarren mailako ezagutza handiagoa izanik bi kasuetan.

2. taula: 2. eta 3. mailako ikasleen datuak UD-aren aurretik egindako galdetegian

	Joko alternatiboen ezagutza	Artzikirolaren ezagutza	Artzikirolaren ekintzak abiarazteko nahia	Kirol alternatiboetan parte hartzea	Kirol alternatiboak GHn gehiago lantzearen alde
2. mailakoak (n =14)	0.93±0.73	2.79±0.89	3.36±1.08	3.29±0.99	3.79±0.97
3. mailakoak n=22)	1.45±0.59	3.41±0.73	3.45±0.91	3.73±0.76	3.59±0.73
P	0.03*	0.03*	0.97	0.23	0.53
Efektuaren tamaina	0.06	0.06	<0.001	0.01	0.005

GH Gorputz Hezkuntza. Datuak bataz bestekoa ± desbideratze estandarra dira. P adierazgarritasun maila. *Ezberdintasun esanguratsuak mailen artean (P<0.05).

Hirugarren taulak bigarren eta hirugarren mailako ikasleek, kasu honetan ere talde bakar bezala hartu gabe, UD egin ondoren izandako datuak erakusten ditu. Bertan, ez dira ezberdintasun esanguratsurik topatu.

3. taula: 2. eta 3. mailako ikasleen datuak UD-ren ondoren egindako galdetegian

	Joko alternatiboaren ezagutza	Artzikirolaren ezagutza	Artzikirolaren ekintzak abiarazteko nahia	Kirol alternatiboetan parte hartzea	Kirol alternatiboak GH-n gehiago lantzearen alde
2. mailakoak (n =14)	1.57±0.51	3,14±0.77	3,43±0.51	3.86±0.66	3.50±0.76
3. mailakoak (n=22)	1.77±0.42	3.32±0.78	3.86±0.77	3.95±0.89	4.00±0.87
P	0.2	0.47	0.09	0.78	0.08
Efektuaren tamaina	0.02	0,007	0,03	0.001	0.04

GH Gorputz Hezkuntza. Datuak bataz bestekoa ± desbideratze estandarra dira. P adierazgarritasun maila. *Ezberdintasun esanguratsuak mailen artean (P<0.05).

Laugarren taulak emakumezko eta gizonezkoek UD aurretik izandako emaitzak erakusten ditu. Ezberdintasun esanguratsuak bakarrik Artzikirolaren ezagutzan topatu ziren efektuaren tamaina ertaina izan zelarik. Zehazki, emakumeek gizonezkoek baino ezagutza handiagoa zuten.

4. taula: Emakumezko eta gizonezko ikasleen datuak unitate didaktikoa egin aurretik

	Joko alternatiboaren ezagutza	Artzikirolaren ezagutza	Artzikirolaren ekintzak abiarazteko nahia	Kirol alternatiboetan parte hartzea	Kirol alternatiboak H-n gehiago lantzearen alde
Emakumeak (n =14)	1.29±0.72	3.57±0.64	3.29±1.06	3.57±1.08	3.86±0.86
Gizonezkoak (n=22)	1.23±0.68	2.91±0.86	3.50±0.91	3.55±0,73	3.55±0.80
P	0.77	0.02*	0.62	0.51	0.21
Efektuaren tamaina	0.001	0.07	0.003	0.005	0.02

GH Gorputz Hezkuntza. Datuak bataz bestekoa ± desbideratze estandarra dira. P adierazgarritasun maila. *Ezberdintasun esanguratsuak mailen artean (P<0.05).

Bosgarren taulak emakumezko eta gizonezkoek UD ondoren izandako emaitzak erakusten ditu. Berriro ere, ezberdintasun esanguratsuak bakarrik Artzikirolaren ezagutzan topatu ziren efektuaren tamaina, kasu honetan, txikia izan zelarik. Zehazki, emakumeek gizonezkoek baino ezagutza handiagoa zuten.

5. taula: Emakumezko eta gizonezko ikasleen datuak unitate didaktikoa egin ondoren

	Joko alternatiboaren ezagutza	Artzikirolaren ezagutza	Artzikirolaren ekintzak abiarazteko nahia	Kirol alternatiboetan parte hartzea	Kirol alternatiboak GH-n gehiago lantzearen alde
Emakumeak (n =14)	1.79±0,42	3.57±0.64	3.64±0.74	4.07±0.91	3.93±0.99
Gizonezkoak (n=22)	1.64±0.49	3.05±0.78	3.73±0.70	3.82±0.73	3.73±0.76
P	0.35	0.04*	0.68	0.38	0.59
Efektuaren tamaina	0.01	0.05	0.002	0.01	0.003

GH Gorputz Hezkuntza. Datuak bataz bestekoa ± desbideratze estandarra dira. P adierazgarritasun maila. *Ezberdintasun esanguratsuak mailen artean (P<0.05).

Seigarren taulak emakumezko eta gizonezkoek UD aurrera eraman eta hilabetera izandako emaitzak erakusten ditu. Kasu honetan ez zen ezberdintasun esanguratsurik aurkitu aipatutako taldeen artean.

6. taula: Emakumezko eta gizonezko ikasleen datuak unitate didaktikoa burutu eta hilabete batera

	Joko alternatiboan ezagutza	Artzikirolare n ezagutza	Artzikirolaren ekintzak abiarazteko nahia	Kirol alternatiboetan parte hartzea	Kirol alternatiboak GH-n gehiago lantzearen alde
Emakumeak (n =14)	1.71±0.46	3.14±0.77	3.64±0.63	3.71±0.72	3.86±0.66
Gizonezkoak (n=22)	1.50±0.512	3.36±0.727	4.00±0.81	3.82±0.73	3.86±0.71
P	0.21	0.37	0.19	0.67	1.00
Efektuaren tamaina	0.02	0.01	0.02	0.17	<0.01

GH Gorputz Hezkuntza. Datuak batuz bestekoa ± desbideratze estandarra dira. P adierazgarritasun maila. *Ezberdintasun esanguratsuak mailen artean (P<0.05).

3) Emakume eta gizonezkoen arteko alderaketa

Galdetegiaren azkeneneko galderan gorputz hezkuntzan kirol alternatiboak zergatik landu nahi zituzten galdetu zitzaien ikasleei, horretarako 6 erantzun posible adierazten zitzaielarik eta baita, haiek erantzun bat adierazteko aukera. Ondorengo kontingentzi taulan UD egin aurretik lortutako emaitzak adierazten dira emakumezko eta gizonezko ikasleak ezberdinduz.

7. Taula: 10. galderaren erantzunak UD egin aurretik

Sexua		10. galdera					Guztira
		1	2	3	5	6	
Emakume	Zenbaketa	7	3	0	2	2	14
	Espero den zenbaketa	6.2	2.3	.4	2.3	2.7	14.0
	Sexuaren %	% 50.0	% 21.4	% 0.0	% 14.3	% 14.3	% 100.0
	10. galderaren %	% 43.8	% 50.0	% 0.0	% 33.3	% 28.6	% 38.9
	% guztira	% 19.4	% 8.3	% 0.0	% 5.6	% 5.6	% 38.9
Gizon	Zenbaketa	9	3	1	4	5	22
	Espero den zenbaketa	9.8	3.7	.6	3.7	4.3	22.0
	Sexuaren %	% 40.9	% 13.6	% 4.5	% 18.2	% 22.7	% 100.0
	10. galderaren %	% 56.3	% 50.0	% 100.0	% 66.7	% 71.4	% 61.1
	% guztira	% 25.0	% 8.3	% 2.8	% 11.1	% 13.9	% 61.1
Guztira	Zenbaketa	16	6	1	6	7	36
	Espero den zenbaketa	16.0	6.0	1.0	6.0	7.0	36.0
	Sexuaren %	% 44.4	% 16.7	% 2.8	% 16.7	% 19.4	% 100.0
	10. galderaren %	% 100.0	% 100.0	% 100.0	% 100.0	% 100.0	% 100.0
	% guztira	% 44.4	% 16.7	% 2.8	% 16.7	% 19.4	% 100.0

Adierazgarria da emakumeen artean erdiak lehenengo erantzuna aukeratzea, hau da, emakumeen %50-ak joko alternatiboak aukeratzea beti kirol edo joko berdinak ez lantzeko. Horretaz gain, emakumeen artean inork ez zuen aukeratu 3. erantzuna, hau da, gehiago pentsatzea edo sormena lantzea eragiten duelako. Bestalde, gizonen kasuan, lehenengo erantzuna %41-ak aukeratu zuten eta hirugarren erantzuna izan zen aukeraketa gutxien izan zuena, %5-ak baino ez zuen aukeratu. Beraz, nabaria da bi sexuak kontuan izanda lehenengo galdera izan zela erantzun gehien izan zuena, ikasle guztien %44-ak aukeratu zuelako, hau da, 16 pertsonak. Eta hirugarren erantzuna, ikasle guztien %3-ak baino ez zuen aukeratu, hau da, pertsona batek. Laugarren erantzuna, norbere gustuetara egokitu dezakegula, ez zuen inork aukeratu. Ez zen menpekotasunik aurkitu sexuaren eta erantzunen artean ($P = 0.827$).

8. Taula: 10. galderaren erantzunak UD egin ondoren

			10. galdera				
			1	2	5	6	Guztira
Sexua	Emakume	Zenbaketa	6	3	4	3	16
		Espero den zenbaketa	6.2	3.6	3.1	3.1	16.0
		Sexuaren %	% 37.5	% 18.8	% 25.0	% 18.8	% 100.0
		10. galderaren %	% 42.9	% 37.5	% 57.1	% 42.9	% 44.4
		% guztira	% 16.7	% 8.3	% 11.1	% 8.3	% 44.4
	Gizon	Zenbaketa	8	5	3	4	20
		Espero den zenbaketa	7.8	4.4	3.9	3.9	20.0
		Sexuaren %	% 40.0	% 25.0	% 15.0	% 20.0	% 100.0
		10. galderaren %	% 57.1	% 62.5	% 42.9	% 57.1	% 55.6
		% guztira	% 22.2	% 13.9	% 8.3	% 11.1	% 55.6
Guztira	Zenbaketa	14	8	7	7	36	
	Espero den zenbaketa	14.0	8.0	7.0	7.0	36.0	
	Sexuaren %	% 38.9	% 22.2	% 19.4	% 19.4	% 100.0	
	10. galderaren %	% 100.0	% 100.0	% 100.0	% 100.0	% 100.0	
	% guztira	% 38.9	% 22.2	% 19.4	% 19.4	% 100.0	

Galdetegia egin ondoren, ikasleek ez zuten aldaketa oso nabarmena egin. Lehenengo galderari dagokionez, emakumeen %38-k aukeratu zuten eta gizonen kasuan %40-ak. Beraz, ikasle guztien %39-k aukeratu zuten. Bestalde, gertaera aipagarria gertatu zen, izan ere, neska zein mutilen artean unitate didaktikoa egin ondoren inork ez zuen hirugarren ezta laugarren erantzunak aukeratu. Hau da, hirugarren erantzunak gehiago pentsatzea eta sormena lantzea eragiten duelako zihoen eta laugarren erantzunak aldiz, norbere

gustuetara egokitu dezakegulako. Ez zen menpekotasunik aurkitu sexuaren eta erantzunen artean ($P = 0.888$).

9. Taula: 10. galderaren erantzunak galdetegia egin eta hilabete batera

Sexua	Emakume	Zenbaketa	10. galdera				Guztira
			1	2	5	6	
		Zenbaketa	7	2	3	2	14
		Espero den zenbaketa	7.0	3.1	2.3	1.6	14.0
		Sexuaren %	% 50.0	% 14.3	% 21.4	% 14.3	% 100.0
		10. galderaren %	% 38.9	% 25.0	% 50.0	% 50.0	% 38.9
		% guztira	% 19.4	% 5.6	% 8.3	% 5.6	% 38.9
	Gizon	Zenbaketa	11	6	3	2	22
		Espero den zenbaketa	11.0	4.9	3.7	2.4	22.0
		Sexuaren %	% 50.0	% 27.3	% 13.6	% 9.1	% 100.0
		10. galderaren %	% 61.1	% 75.0	% 50.0	% 50.0	% 61.1
		% guztira	% 30.6	% 16.7	% 8.3	% 5.6	% 61.1
Guztira		Zenbaketa	18	8	6	4	36
		Espero den zenbaketa	18.0	8.0	6.0	4.0	36.0
		Sexuaren %	% 50.0	% 22.2	% 16.7	% 11.1	% 100.0
		10. galderaren %	% 100.0	% 100.0	% 100.0	% 100.0	% 100.0
		% guztira	% 50.0	% 22.2	% 16.7	% 11.1	% 100.0

Unitate didaktikoa aurrera eraman eta hilabete bat beranduagoko emaitzetan, ez zen aldaketa nabarmenik lehenago betetako galdetegiarekin konparatuz. Emakume zein gizonen artean lehenengo erantzunak aukeraketa gehien izan zuen. Emakumeen %50-ak eta gizonen %50-ak aukeratu zuelako. Beraz, 18 ikaslek aukeratu zuten aipatutako erantzuna. Bestalde, hirugarren zein laugarren erantzunak aukeratu gabe geratu ziren berriro ere. Ez zen menpekotasunik aurkitu sexuaren eta erantzunen artean ($P = 0.760$).

4.4 Eztabaida

Parte hartzaileek Artzikirolaren ezagutzan, Artzikirolaren ekintzak abiarazteko nahian, kirol alternatiboen parte hartzean eta kirol alternatiboak GH-n lantzearen alde egotean balio nahiko altuak izan zituzten unitate didaktikoa aurrera eraman aurretik, ondoren eta hilabetera. Joko alternatiboen ezagutza unitate didaktikoa egin aurretik eta ondoren aldatu egin zen, zehazki, ikasleek unitate didaktikoa aurrera eraman ondoren galdetegia erantzun zutenean emaitza hobetoak lortu zituzten. Unitate didaktikoa burutu eta hilabetera buruturiko galdetegian ez ziren emaitzak nabarmen aldatu eta

honek ezagutzak barneratuta jarraitu zuela adierazten du eta baieztatu daiteke unitate didaktikoa aurrera eraman ondoren ezagutza ezberdinak barneratu zituztela joko alternatiboen inguruan. Aitzitik, Artzikirolaren ezagutzaren inguruan egindako galderetan ez zen hobekuntzarik egon, unitate didaktikoa egin ostean ezta hilabete batera. Posible da Artzikirolaren inguruan egindako galderak lan honetako parte hartzaileentzako nahiko sinpleak izatea. Lehen hezkuntzan kirol alternatibo hau landu zuten eta ikasle batzuk aurreko urteetan eskolako Artzikiroleko txapelketan parte hartu zuten ere. Beraz, Artzikiroleko ezagutzak unitate didaktikoaren aurretik barneratuta zituztela nabarmendu da.

Feu Molinaren artikuluan (2008) 3. mailako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek joko alternatiboetan daukaten inplikazio-maila, aniztasuna eta hautemandako zailtasuna eta gaitasun-maila kirol tradizionalekin konparatu zen. Bertan ikaslegoaren %65ak adierazi zuen joko edo kirol alternatiboek dibertsio maila altua edo oso altua zutela eta %37ak dibertsio maila ertaina zutela. Feu Molinaren artikuluekin jarraituz, inplikazio mailari dagokionez, parte hartzaileen %39ak joko eta kirol alternatiboetan inplikazioa kirol tradizionaletan baino handiagoa egon zela adierazi zuten eta %32k inplikazioa berdina izan zela. Hemen aurkezten den lanean buruturiko ikerketarekin bat egiten dute emaitza horiek, izan ere parte hartze maila kirol alternatiboetan kirola tradizionaletakoekin konparatuz, nahiko handia zela adierazi zuten ikasleek. Feu Molinaren lanarekin amaitzeko, ikaslegoaren %96ak adierazi zuen joko eta kirol alternatiboak gorputz hezkuntzan erabiltzea positiboa dela. Datu hauek bat egiten dute hemen aurkezten den lanean buruturiko ikerketarekin, izan ere ikasleak kirol alternatiboak gorputz hezkuntzan gehiago lantzearen alde agertu dira unitate didaktikoa burutu aurretik, ondoren eta hilabete batera.

Ashutosh et al.-ek (2016) bigarren hezkuntzako ikasleek gorputz-hezkuntzako jarduerarekiko dituzten jarrerak eta kirol-jardueren lehentasunak aztertu zituzten eta ikasleek beraien ikasketa prozesurako jarduera positiboa zela iritzi zuten. Azterketaren emaitzetatik gorputz-hezkuntzako jarduerarekiko ikasleek duten jarreran eragiten duten faktore batzuk nabarmentzen dira, hala nola, gorputz-hezkuntzako klaseen onurak, gorputz-hezkuntzako klaseen seriotasun-maila, ikasleek gorputz-hezkuntzako jarduerarekiko duten pertzepzioa, eta jarduera eta ariketa fisikoei

ematen zaien balio osoa. Honekin lotuta, posible da lan honetako parte hartzaileek joko tradizionalakiko eta artzikirolarekiko duten jarreran jarduera hauen onurak, jarduera hauen inguruan burututako klaseen seriotasun-mailak, ikasleek jarduera hauekiko duten pertzepzioak eta ikasleek jarduera horiei ematen dien balio osoak eragina izatea.

Lan honetan burututako ikerketan emakumeek Artzikirolaren ezagutza handiagoa erakutsi zuten gizonezkoek baino, bai unitate didaktikoa aurrera eramanez, eta baita ondoren ere. Ashutosh et al.-en (2016) lanean alde esanguratsuak aurkitu ziren ($p < 0,01$) gorputz-hezkuntzako jarduerarekiko jarreran generoari dagokienez, zehazki, neskek mutilek baino jarrera positiboagoak izan zituzten. Posible da emakumeek Artzikirolaren inguruan ezagutza handiagoa (gizonezkoekin konparatuz) izatea jarduera honekiko jarrera hobetuz. Bestalde, hemen aurkeztzen den lanean buruturiko ikerketan, ez da menpekotasunik aurkitu sexuaren eta kirol alternatiboak gorputz hezkuntzako klasean lantzearen arrazoiaren (10. galderaren) artean, izan ere, emakume zein gizonezkoek normalean joko edo kirol alternatiboak gorputz hezkuntzan lantzea gustuko dute ondorengo arrazoiarengatik: beti joko edo kirol berdinak ez lantzeko.

Artzikirolaren inguruan unitate didaktiko bat proposatu eta aurrera eramanez da lan honetan. Unitate didaktikoan besteak beste ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan ze metodo erabiliko diren zehazten dira. Moreno-Díaz et al.-ek (2021) Colpbolaren unitate didaktikoa proposatu berri du. Lan honetako Unitate didaktikoaren metodologia eta Moreno-Díaz et al.-ek (2021) sortutako unitate didaktikoaren metodologia bat datoz hurrengo puntuetan: Bi unitate didaktikoetan oso garrantzitsua da Ullastres eta Ortegak adierazten duten moduan (1998) ikasleek ikaskuntza esanguratsuak garatzea, horretarako oso garrantzitsua baita ikaslea prozesuaren parte aktiboa izatea. Gainera, ikasleen garapen integrala lantzen du gaitasun motorrekin batera. Horrela, gaitasun kognitiboak, sozialak eta afektiboak ere garatuko dira eta ikasle bakoitzak hausnartzeko aukera izango du (Zeichner eta Liston, 2003). Azkenik, koebaluazioa eta autoebaluazio metodoak erabiltzen dira ikaskuntza prozesu gisa (Gómez eta Sacristán, 1992).

Lan honek indar eta muga batzuk ditu. Galdetegia aurrera eramanez aurretik 2. mailako eta 3. mailako lau ikaslekin galdetegia jorratu zen, proba pilotu gisa, galdera guztiak ondo formulatuak zeudela eta modu egokian

ulertzen zirela aztertzeko. Ondoren, guztia ondo ulertzen zela antzemanda, parte hartzaile guztiek egin zuten lehenengo galdetegia (N=36). Galdetegiaren fidagarritasuna eta baliagarritasuna ez dugu neurtu baina galdetegia aldizkari zientifikoetan argitaratutako artikuluetan oinarrituta dago. Bestetik, galdetegia anonimoa izatean datuen analisia egiteko orduan zailtasun ezberdinak aurkitu dira, ezin izan da ANOVA mistoaren frogaren bidez datuak aztertu. Hala ere, anonimoak izateak fidagarritasun handiagoa ematen dio galdetegiaren erantzunei.

Lan honen aplikazio praktikoei dagokionez, unitate didaktikoa DBHko 3.mailako ikasleekin eraman da aurrera. Unitate didaktikoa baliagarria izan daiteke DBH-ko ikasleekin joko alternatiboen ezagutza eta interesa pizteko. Izan ere, joko alternatiboen ezagutza handitu egin da unitate didaktikoa jorratu ondoren eta denbora batera ezagutzak barneratuta jarraitzen dutela ondorioztatu dugu. Aitzitik, aldaera ezberdinak proposatu beharko lirateke maila ezberdinetako helburu, eduki eta konpetentzietara egokitzeko.

4.5 Ondorioak

Ikasleen ezagutzak aztertu ahal izateko, lehen esan bezala, hiru galdetegi berdin bete dituzte ikasleek Artzikirolaren inguruko unitate didaktikoa aurrera eraman aurretik, ondoren eta hilabete batera. Lortutako emaitzak aztertu ondoren nabarmentzekoa da kirol alternatiboen inguruko ezagutza berriak barneratu dituztela. Aztertutako aldagaiak kontuan hartuz kirol alternatiboen ezagutza aztertzeko galdetegia eta unitate didaktikoa gorputz hezkuntzako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan lantzeko aproposa dela antzematen da. Gainera, aipagarria da emakumeek Artzikirolaren ezagutza handiagoa izan dutela gizonezkoekin konparatuz gero. Hala ere, ikasleen artean gorputz hezkuntzan kirol alternatiboak lantzearen arrazoiaren artean ez da menpekotasunik aurkitu emakume eta gizonezkoen artean, ikasleen gehiengoak "beti joko edo kirol berdinak ez lantzeko" erantzuna aukeratu zuten.

5 ERREFERENTZIAK

- Aromando, M.D. (2013). Los deportes alternativos en la escuela. *X Congreso Argentino y V Latinoamericano de Educación Física y Ciencias*. Universidad Nacional de la Plata: Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación.
- Ashutosh, A., Nrusingha, P., & Anshuman, M. (2016). Students' sports activity preference and their attitudes toward physical education. *International Journal of Modern Trends in Engineering and Research*, 3(3), 328-332.
- Barbero, J. C. (2000). Los juegos y deportes alternativos en Educación Física. *Educación Física y Deportes, Aldizkari Digitala*, 22.
- Borrego, F.J., Carrillo, A.B., & Díaz, A. (2015). Análisis descriptivo de la práctica físico-deportiva e intereses de práctica en escolares de 5 y 6 de primaria. *Aldizkari Euroamericana: de Ciencias del Deporte*, 4 (1), 23-28.
- Blanco, JB eta Amarica M (2012). *Artzikirol: una nueva propuesta lúdica para la multiactividad*. Gasteiz: España. Arabako Foru Aldundia argitalpen zerbitzua.
- Casanova, M.A. (2012). El diseño curricular como factor de calidad educativa. *Iberoamerikako aldizkaria: calidad, eficacia y cambio en educación*, 10 (4), 6- 20.
- Espejo, T., Zurita, F., Chacón, R., Castro, M., Martínez-Martínez, A., y Pérez-Cortés, A. J. (2018). Physical activity and self-concept: study two factors teens of rural area. *Psicología del ejercicio y el deporte aldizkaria*, 13(2), 203-210.
- Ferreres, J. O. (2004). *La animación deportiva, el juego y los deportes alternativos*. Bartzelona: INDE.
- Feu, S. (2008). ¿Son los juegos deportivos alternativos una posibilidad para favorecer la coeducación en las clases de Educación Física? *Campo Abierto. Revista de Educación*, 27(2), 31-47.

- Gómez, P., & Sacristán, G. (1992). *Comprender y transformar la enseñanza*. Madrid: Morata.
- Hernández, J. M. (2007). El valor pedagógico de los deportes alternativos. *Educación Física y Deportes, Aldizkari Digitala*, 114.
- Jiménez, J. (2010). Los juegos y deportes alternativos en educación física. *Aldizkari digitala: Enfoques Educativos*, 67, 142-151.
- Lara, A. J., eta Cachón, J. (2010). Kinball: los deportes alternativos en la formación del/la docente de educación física. En *CiDd: II Congreso Internacional de Didácticas 2010*, Girona (Gironako Unibertsitatea).
- Lara, A.; Cachón, J.; Valdivia, P.; Espejo, N. (2015). Los deportes alternativos como elementos educativos en la escuela. Korfball y Kin-ball. En Arufe Giráldez, V. (Coord). *V Congreso Mundial del Deporte Escolar*, A Coruña, 5-7 2015 (pp.1-7). A Coruña: Sportis.
- Maher, J. M., Markey, J. C., & Ebert-May D. (2013). The Other Half of the Story: *Effect Size Analysis in Quantitative Research*. *CBE—Life Sciences Education*, (12), 345-351.
- Martínez Hita, F. J. (2018). Nuevos deportes para una nueva Educación Física. *Irakurgaiak: Educación Física Y Deportes*, 23(243), 73-88.
- Moreno-Díaz, M. I., Tapia-Serrano, M. Á., Vaquero-Solís, M., & Sánchez-Miguel, P. A. (2021). El deporte colectivo en educación física. Unidad didáctica del COLPBOL. *Revista Española de Educación Física y Deportes*, (432), 101-109.
- Molina, S. F. (2008). ¿ Son los juegos deportivos alternativos una posibilidad para favorecer la coeducación en las clases de Educación Física?. *Campo Abierto. Revista de Educación*, 27(2), 31-47.
- Muñoz, D. (2009). Conoce y practica diferentes deportes alternativos en el área de Educación Física. *Aldizkaria: Educación Física y Deportes*, 136, 1.

- Parra, C. eta Sancho, M. (2008). Deportes alternativos: una propuesta práctica desde el punto de vista del profesor. En *V congreso nacional y III congreso iberoamericano de deporte en edad escolar: "Nuevas Tendencias y perspectivas de futuro"* (pp. 351-374), 2008ko azaroaren 20, 21 eta 22 Dos Hermanas (Sevilla).
- Peire, T., eta Estrada, J. (2015). Innovación en la Educación Física y en el deporte escolar: métodos de enseñanza, deportes y materiales alternativos. *E-balonmano.com: Ciencias del Deporte aldizkaria*, 11 (2), 223-224.
- Requena, Ó. (2008). Juegos alternativos en educación física: flag football. *Innovación y Experiencias Educativas*, 4.
- Robles, J. (2009). *Tratamiento del deporte dentro del área de Educación Física durante la etapa de Educación Secundaria Obligatoria en la provincia de Huelva. Tesis de doctorado*. Departamento de Expresión Corporal: Universidad de Huelva.
- Ullastres, Á. M., & Ortega, E. M. (1998). Calidad de la enseñanza en tiempos de cambio. Alianza Editorial.
- Usabiaga, O., eta Martos i García, D. (2012). La tradición lúdica en el currículum educativo. Los juegos y deportes de pelota en Educación Física: una propuesta comprensiva. *Apunts, Educación Física y Deportes*, 107, 31-40.
- Zeichner, K., & Liston, D. (2003). Raíces históricas de la enseñanza reflexiva. Traducción de: Zeichner, K. M., & Liston, D. P. (1996). Historical roots of reflective teaching. *Reflective teaching: An introduction*, 8-22.

6 ERANSKINAK

1. eranskina: Informazio orria

 Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea	 HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA FACULTAD DE EDUCACIÓN Y DEPORTE
---	---

INFORMAZIO ORRIA

Ikertzaile nagusiaren identifikazioa

Andrea Romay Gómez

E-mail: andrearomay011@gmail.com

Telefonoa: 608075641

Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

Portal de Lasarte, 71. 01007. Vitoria-Gasteiz.


Proiektuaren identifikazioa

Izenburua: "Kirol alternatiboak gaur egungo eskoletan: Artzikirola sustatuz".

- Helburua: Ikerketa hau Jarduera Fisiko eta Kirol Zientzietako Gradu Amaierako Lan bat da. Helburua ikastetxe honetako D.B.H 2. eta 3. mailako ikasleek kirol alternatiboen inguruko ezagutzak aztertzea da, horretarako hiru galdetegi aurrera eramango dira. Horretaz gain, Artzikirolaren inguruko unitate didaktikoa aurrera eramango da. Honela, kirol alternatiboen interesa handitzea lortu nahi da.
- Lekua: Antzinako Andra Mari ikastetxea.
- Metodoa: Lehenengo galdetegi bat aurrera eramango da ikasleak kirol alternatiboen inguruko aurre ezagutzak eta interesak aztertzeko eta ondoren, Artzikirolaren inguruko unitate didaktikoa aurrera eramango da. Bukatzeko, beste galdetegi bat egongo da bereganatutako ezagutzak eta interesak aztertzeko.

- Lekua, iraupena eta frekuentzia: Galdetegia ikastetxeko gimnasioan aurrera eramango da. Iraupena 5 saiokoa izango da eta gorputz hezkuntza ikasgaiari aurrera eramango da.
- Prozeduraren deskribapena: Galdetegia ikasgela batean aurrera eramango da gorputz hezkuntzako saioa duten egun batean. Lehenik eta behin ikasleei azalduko zaie galdetegia kirol alternatiboen ingurukoa izango dela eta bakarrik bere jakintzekin erantzun ahal dela. Izan ere, ez dira erantzun zuzen edota okerrik egongo. Aurretiko jakintzak eta ikuspuntuak aztertuko dira, beti ere galdetegia anonimoa izango da eta ez da ebaluatuko. Unitate didaktikoa jorratu ondoren egingo den galdetegia antzekoa izango da, bereganatutako ezagutzak eta interesak aldatu diren aztertuko dira. Aurreko galdetegian gauzatutako prozedura berdina erabiliko da.
- Arriskuen eta/edo eragozpenen deskribapena: Galdetegi hauek pasatzeko protokolo seguru batzuk pasa behar dira eta galdeketa hauek ikerketa kontrastatuetatik lortutako informaziotik bildu dira. Egon daitezkeen arrisku eta eragozpenak minimoak dira. Izan ere galdeketak guztiz anonimoak dira eta uste dugu ez duela pertsonen etika, emoziorik edo egoera pertsonalik kaltetzen. Aipatu bezala, galdeketak pasatu baina lehen ikasleei informazio guztia azalduko zaie. Behin ikerketa bukatuta, interesa izanez gero, gurekin kontaktuan jarri zaitezke emaitzak ikusteko eta aztertzeko. Zalantzaren bat izanez gero, jarraitutako prozeduretan eta ikerketetan, gurekin kontaktuan jarri zaitezke (Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, Portal de Lasarte, 71. 01007 Vitoria-Gasteiz) edo/eta zenbaki honetara deituz 608075641 edo helbide honetara mezu bat bidaliz: andrearomay011@gmail.com

2. eranskina: Lehenengo galdera-sorta

		<p>HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA FACULTAD DE EDUCACIÓN Y DEPORTE</p>	
KIROL ALTERNATIBOEN INGURUKO GALDERA-SORTA I			
IKASLEAREN DATUAK			
ADINA	SEXUA	Emakume	Gizon
<p>- Noizbait jokatu duzu Artzikirolera? _____.</p> <p>- Horrela bada, noizbait parte hartu duzu txapelketa batean? Zein txapelketan? _____.</p>			
ARGIBIDEAK			
<p>Galdera-sorta honek kirol alternatiboen inguruko ezagutza eta interesa ezagutzea du helburu. Horretarako bi galdera multzo topatuko dituzue. Alde batetik, aukera ezberdinetatik erantzun ZUZENA aukeratu behar dituzuen galderak. Eta bestalde, 1etik 5era erantzun beharreko galderak. 1 oso baxua izanik eta 5 oso altua.</p>			
GALDERAK			
<p>1.- Zer da kirol alternatibo bat? Aukeratu erantzun zuzena.</p> <p>a) Kirol alternatiboak tradizioaletik bereizten diren kirolak dira, material desberdin bat erabiltzen dutelako edota hasieran diseinatu ziren moduan erabiltzen ez direlako.</p> <p>b) Kirol alternatiboak kirol berriak dira, normalean telebistan ikusten ditugunak, adibidez: futbola eta saskibaloia dira.</p> <p>c) Kirol alternatiboak kirol tradizionalak dira, orain dela urte ugari sortuak eta hasieran sortu ziren moduan gaur egun berdin erabiliak.</p> <p>d) Kirola alternatiboak telebistan ikusten diren kirolak dira, ezagunena errugbia da.</p>			
<p>2.- Aukeratu hurrengo kiroletatik zein den kirol alternatibo bat.</p> <p>a) Futbola</p> <p>b) Saskibaloia</p> <p>c) Artzikirol</p> <p>d) Golf</p>			
<p>3.- Artzikirola zein kirolek osatzen dute?</p> <p>a) Futbola, saskibaloia eta tenisa</p> <p>b) Futbola, errugbia eta eskubaloia</p> <p>c) Hockey, padel eta saskibaloia.</p> <p>d) Hockey eta errugbia.</p>			

4.- Ondorengo materialen artean zein da ezinbestekoa Artzikirolean aritzeko?

- a) Teniseko pilota txikiak eta erraketak
- b) Ez dago zertan materiala erabili beharrik
- c) Zapatila zuriak eta baloia
- d) Baloia

5.- Non jolasten da Artzikirolera?

- a) Arezko zelai handian.
- b) Areto-futboleko zelaian jokatzen da.
- c) Futboleko zelai handian jokatzen da, zelaia belarrezkoa izan behar da.
- d) Errugbiko zelaian jokatzen da.

6.- Nola jokatzen da Artzikirolera?

- a) Bi talde aritzen dira bata bestearen aurka, bakarrik mutilek jokatzen dute.
- b) Talde bat bestearen aurka eta neska eta mutilek talde mixtoak osatzen dituzte.
- c) Talde bat bestearen aurka baina neska eta mutilek ezin dute talde berdinean jokatu.
- d) Errugbiko porteriatik baloia pasatu behar da irabazteko.

7.- Gustatuko litzaizuke Artzikirolaren inguruan ekintza edo ariketa ezberdinak egitea? (1 oso baxua izanik eta 5 oso altua)

1	2	3	4	5

8.- Kirol alternatiboak kirol tradizionalekin konparatuz gero, kirol alternatiboetan zure parte hartzea handia da? (1 oso baxua izanik eta 5 oso altua)

1	2	3	4	5

9.- Gorputz hezkuntzak kirol alternatibo gehiago lantzea gustatuko litzaizuke? (1 oso baxua izanik eta 5 oso altua)

1	2	3	4	5

10.- Zergatik landu nahiko zenituzke kirol alternatiboak gorputz hezkuntzako klasean? (bat baino gehiago aukeratzea posible da)

- Beti kirol edo joko berdinak ez lantzeko.
- Jarduera oso dibertigarriak direlako.
- Gehiago pentsatzea eta sormena lantzea eragiten dutelako.
- Norbere gustuetara egokitu dezakegulako.
- Jolasteko eta ondo pasatzeko beste modu batzuk ezagutzen ditugulako.

- Guztiek parte hartu dezakegulako.
- Beste bat, (idatzi) _____.

Mila esker zuen parte hartzeagatik